

Iparraldeko Ekonomia

Ramuntxo Kanblong

SARRERA

1. — Euskal Herririk ez dago Frantziako Estatuan

Engoitik gauza ezaguna da, Frantziako administrazioarentzat ez dagoela Euskal Herririk. Honen ondorioetarik bat izan da Ipar Euskal Herria inon ez dela bere osotasunean kontsideratua izan: ez eskolan, ez elizan, ez estatistiketan. Ekonomian, hasteko, gerla ondoko lehen abertzaleak izan dira, Enbatan, Ipar Euskal Herria bere osotasunean hartu dutenak (Piarres Larzabal, J. L. Davant, E. Etxamendi...). Enbatak agertu zuen horretaz bilduma bat frango aberatsa, 1967an. Bestalde, 1963an JAKINen agertu genuen estudio bat, bereziki demografian eta industrian Ipar Euskal Herria osoan hartzen zuena.

Geroztik, Baionako Merkatal Ganbarak (Chambre de Commerce) 1971an agertu zuen estudio sakon bat gai horretaz (Zuberoa gabe haatik, hau Paueko Merkatal Ganbarari lotua baita, nonbaitik ere!). Orduko zifrak azalduko ditugu hemen, bai eta INSEE Frantziako etxe ofizialak egin jende-kontatzeenak ere (1954-1962-1968-1975). Egia erran, 1968az geroztik gero eta gehiago agertzen

dira ikasle gaztek egindako lan batzu Unibertsitateetan. Segi dezatela aitzina... badugu bide egiteko oraino.

Ekonomiazko estudioetan edo pentsakeran, arras berriki arte Euskal Herririk Frantziako Estatuan ez baldin bazegoen, gauza bera gertatu izan da 1789az geroz ekonomiazko ekintzetan.

Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoko Biltzarrak deseginez geroz euskal populuak ez du berezko instituziorik izan Bidasoaz ipar aldean. Garat anaiak entseiatu ziren departamendu baten eraikitza iraultza denboran (1790), baina ez ziren beren xedeetara heldu. Nortasun zerbait izan duten eraikidura bakarrak herriak (Herriko etxeen bitartez) eta bailaretako Sindikatoak izan dira.

Gaur egun, gainera, horien bitartez egiten ari dira akordio berri batzu Estatuaren eta gure populuaren artean (kultura sailean Karta edo Hitzarmen baten firmatzeko Ipar Euskal Herri guztiko Herriko Etxeen (Udal Etxeen) Sindikato bat behar da muntatu). Ekonomian berriki moldatu dira bi herri-kontratu, bat Zuberoan, bestea Garazi Baigorriin, Herrien arteko Sindikatoen bidez.

Multzokatze hau gertakari berria dugu eta aise sobera urriegia oraindik: gure herria 200 herrirka ttipitan atomizaturik gelditzen baita sobera maiz, eta sobera ekintza premiatsuari buruz (bide-antolatze, lantegi-muntatze, eta abar). Bestalde, multzokatze honen azkena Ipar Euskal Herriaren batasuna baizik ez daiteke izan, beraz euskal departamendua...

2. — Euskaldunak ekonomian

Hemen idazten ditugun lerroak, bistan da ikuspuntu aberztale batetik eginak ditugula. Ikuspuntu hartarik iduritzen zaigu euskaldunek beharrezkoa dutena, beren herriaz berjabetzea dela. Ezen euskaldunok Ipar aldean, Hego aldean ez bezalako neurri batean, kolonizatuak gara: gure sozietatean promozio bat izan da euskaldun nortasuna uztea eta frantsesa hartzea. Eta, beraz, euskaldunok arras besterenduak (alienatuak) gelditu gara. Gaur egun gure eskualdeko 250 lantegi-gidaritarik ez dago 20 euskaldunik.

Kolonizatua izan delako, bai eta ere Hego Euskal Herriko merkatutik muga batez moztua (Europa iparretik arras urrun gelditzen delarik, bestalde), kolonizatua izan delako beraz, ez du halako iniziatiba handirik ere ezagutu Ipar Euskal Herriak,

bederen industrian (artogintza Donapaleu inguruan nahiko iniziatiba interesantea izan baita). Iniziatiba falta horrek ez du kolonialismoa ttipitu ahal izan ekonomiaren alorrean. Eta hortakoz gaur egun begiak itzultzen ditugun xoko guztietan euskalduna besteen morroi ikusten dugu gure eskualdean: goiztirian Baionako karriketan paseatzen bazara entzunen duzu euskaraz mintzatzen, zikin-biltzaileak euskaldunak dira...

Hori nahi izan dugu miatu, gainez gain bederen, gure idazlan honetan. Zer heinetan euskalduna den gure ekonomia, zer heinetan bertako jendearen eskuetan den eta zer heinetan bertikal deitzen ditugun kanpotar bulegoen manupean.

Gure euskaldun herria hiltzen ari duen gertakaria lan-eskasia eta ondorioz gazteen emigrazioa dela ikusiz, nahi izan dugu ikusi zertan garen, zenbat lantoki eta lantegi dugun gure eskualdean, noren eskuetan diren... Hortik abiatuz, beharbada ohartuko gara zer bide dugun egiteko. Nola egin, hori beste aldi batetarako utziko dugularik.

Gure Ipar Euskal Herria miatzeko bi zatitan ezarri dugu: alde batetik itsas hegia, honi datxekiolarik Ustaritze-Senpereko eskualde hurbila, beraz kasik Lapurdi guztia Hazparne-Ezpeleta salbu. Barne-aldean ezarri dugu Ipar Euskal Herriko gainerako eremu guztia.

LAPURDIKO ITSAS HEGIA

DEMOGRAFIA

Jendetza	1975	168.517
	1968	153.769

Irabaztea 14.756

Sortzeen kopurua ‰ 14,8 da, eta heriotzeena, ‰ 12,6.

Jendetzaren goititzea etorkinetarik ere badator, neurri handi batetan.

Ipar Euskal Herriko jendetzaren lautik iru itsas hegian kokatzen da.

AKTIBITATEAK

Lehen sektorean	5.000	% 7,8
Bigarren sektorean	23.000	% 36,2
Hirugarren sektorean ...	35.000	% 56

I. — Lehen sektorea (Laborantza)

Jende langilearen % 7,8 (5.000 langile).

Ekai nagusiak: artoa, esnea, abere-hazkuntza.

Laneko lurra gero eta gehiago etxagintzarako hartuak dira: prezioak tira ahala goiti ari dira. Turistek, erretiratuek eta «résidences secondaires» delakoek hartzen dute laborarien lurra. Laborarietan jende guti dago oharturik lurra laneko tresna beharrezkoa dela (baliteke zer erran Saran P.O.S. lur antolatzearen inguruan izan diren bozez, garai honetan Senperen diskutatzen den problema). Lur komun handiak ere badira landu gabeak Ustari-tze eta Senpere artean.

II. — Bigarren sektorea (Industria)

Jende langilearen % 36,2 (23.000 langile).

Neurri handi batetan (etxegintza kenduz geroz kasik dena) kanpotarren eskuetan da. Garai honetan krisiak, «gestion» edo gidaritza ahulak bai eta berezko kapital-eskasiak anitz sozietateri leher eginerazi diote azken hiru urte hauetan. Gainera, empresa ohitura biziki guti izan da Ipar aldean, jendea bere biziko beste sailetan bezala «assisté» moduan egona baita.

Dena den, mota askotako aktibitateak aurkitzen ditugu. Ikus ditzagun adar nagusiak.

1. JANARIGINTZA: Jende langilearen % 5,3 (3.500 langile).

Gehienik Donibane-Ziburu ondoan kokatua. Krisi handian dago azken denbora hauetan. Arrantza industrialari heldu zion Luz-Armement sozietateak 1964an¹ (Lekuona eta Ithurralde, Donibaneko oraiko auzapeza, buru), itsasontzi berri batzuekin. Eta 1975ean desegin zen sozietate hori asko arrazoiengatik. Mementu honetan 80 bat ontzi daude 500-600 bat arrantzalerekin ohizko moduan lan egiten dutenak. Baina krisia gogorra izanez, egiazko nagusia «Crédit Maritime» deitu Bankua dute. Dena dela, problema latz honek luzekiago aztertua beharko luke izan eta horretan uzten dugu.

Kontserbategietan, *Soubelet*-ek leher eginenez gero *Saupiquet* (350 langile) etxe kanpotarra jabetu da honetaz. *Soluco* (Donibaneko Ithurralderena, 300 langile) gelditzen da honen parean, eta beste 5 etxe bertakoen eskuetan (20 bat langilerekin bakoitza). Dena dela portuko arrantzarekin kontserbategien % 10 bai-

zik ez da fornitzten eta arrain merkatuko erdia nonbait han (beste erdia Gipuzko-Bizkaian edo La Rochelle-n hartzen delarik). Kanpotarrek buru oraino *Itsasokoan* (130 langile) (Pêcheurs de France) eta *Papa Falcone* (100 langile) Hendaian eta Saran.

Esnetegietan St. Martin (90 langile) bertakoa dugu eta *Oberena Gervais* taldekoa. Bien artean 100.000 litro esne biltzen dute egunero, *Sica esnea* koperatiba gazteak 12.000 egiten dituelarik.

Goxokigintzan baditugu *Noblia* xokolet egilea Kanbon eta goxoki egile zenbait Baionan. Edari egiletan, *Izarra* (54 langile) Baionan.

2. ENERGIA: Jende langilearen % 1,30 (800 langile).

E.D.F.-G.D.F. lantegi nazionalizatua dugu hor nagusi. Erran dezagun Baionako Zentroak bere babesean daukara Landes guztia eta 64 departamendua Orthez-eraino (hiri hau barne hartuz).

3. ETXAGINTZA ETA KANPOKO LANAK (obras públicas, travaux publics): Jende langilearen % 14 (8.800 langile).

Bigarren sektoreko adarrik inportanteena eta gehienik eskaldunen eskuetan dagoena. 150 lantegi ttipik muntatzen dituzte etxeak eta aitzina eramaten kanpoetako obrak. *Margeridon* eta *Larcebeau* bi lantegi ttarroak hilez geroz hirietako etxagintza handia kanpoko sozietate batzuen eskuetan gelditu da.

Etxe eta lur promozionatzaileak ere denak kanpotarrak ditugu, salbu *Donier* Biarritztarra. Zimeta fabrika bat (120 langile) dago Bokalen. Eta euskal etxagintzako lantegien fornitzzaileak gero eta gehiago kanpotarren eskuetara joaten ari dira (beriziki *Poliet* et *Chausson*).

4. METALGINTZA ETA ELEKTRIKA: Jende langilearen % 8 (4.900 langile).

Azken urte hauetan (beraz, 1971ko zifra hau kalkulatu geroz) zenbait lanpostu berri sortu da sail honetan. Baina adar hau kasik dena kanpotarren eta lantegi bertikalen eskuetan da.

Lantegirik haundienak, hauek dira: *Turbomeca* (1.600 langile). Tarnosen, airekoen reaktoreak egiten dituena, *Breguet Dassault* Angelun (1.900 langile) airekoak muntatzen dituena, S.A.F.A.M. (C.G.E.ren taldekoa) (480 langile) fundizioan ari dena Mugerren, Hendaiaiko harmategia (120 langile), S.A.T. eta *Telerad* elektronikan ari direnak (400 langile).

Mekanika sailean aurki daitezke dozena bat lantegi ttipi, haundi honen fornitzzaile direnak.

5. KIMIKA: Jende langilearen % 2 (1.250 langile).

SATEC (250 langile), *Fertiladour* (100 langile), *Socadour* (320 langile), hirurak lantegi bertikalak Bokaleko ur-hegian, eta *Soci t  Industrielle et Sels de Bayonne* (220 langile), gatzategia Mugerren.

6. MANUFATURAK: Jende langilearen % 3,8 (2.400 langile).

Ohiko industria gure eskualdean, zapatagintzan edo espartingintzan ari dira. Kasik denak bertakoen eskuetan.

Faustino Angelun (60 langile), *Victor* Baionan (120 langile), *Berasateguy* Hendaian (50 langile), *Chupa-Chups - Fa.Co.Ba.* (120 langile).

7. ZURGINTZA: Jende langilearen % 1,30 (816 langile).

50 langileko bi lantegi, besteak ttipiagoak dira: jostailu egile, mueble egile.

8. PAPERETA GRAFIA LANAK: Jende langilearen % 1,30 (824 langile).

Zenbait inprimategi (bi nahiko handiak).

Ikusten dugunez, gure eskualdeko industria azkarrena airekoiei lotua da, Baiona inguruan landatua, eta bertikala. Azken hitz honekin zera adierazi nahi dugu: burua kanpoan daukala (beraz gogoia ere... eta lanpostu interesanteak ere).

Etxagintzan badu Ipar Euskal Herriak bere nortasuna, ofiziale edo artesau talde on bati esker, baina lantegi handirik ez du muntatu hemen ere.

Azken hamar urte hauetan Merkatal Ganbarak industria berriak hemen plantatzeko (beti ere nonbaitik ekar eraziz) egin dituen indarrak ez du ondorio handirik ukan. Bi seinatu behar dira, hala ere: *S.A.T.* elektronika-telefonoa lantegia Mugerren, eta *Somepa* berogailu (bonba bitartez) egilea Hazparnen. Teknologia berri batzu bederen ekarri dituzte berekin.

III. — Hirugarren sektorea (zerbitzuak)

Jende langilearen % 56 (35.000 langile).

1. GARRAIOAK ETA KOMUNIKABIDEAK: Jende langilearen % 5,2 (3.824 langile).

Zenbait garraioetxek Penintsula eta ipar Europa (Alemania)

lotzen ditu. Hiriguneetako bai eta hiritartetako garraiobideak ere, hala nola, telefonoa (nazionalizatua eta pribatua), hemen sartzen dira.

2. ZERBITZU PRIBATUAK: Jende langilearen % 24,1 (15.180 langile).

Etxe zerbitzuak: alokatzaileak (ajentziak), zaintzaileak, garbiketaren egileak.

Garajeak, lanbide liberalak, ostatugintza sartzen dira hemen. Lanbide liberaletan kanpotar anitz dugu (erdiak bederen, bai itsasaldean bai barne aldean). Garajeak eta ostatu-mota gehienak, aldiz, bertakoen eskuetan ditugu (hau ere kontuan hartzeko da turismoaz mintzatzean). Irakaskintza pribatua ere (gehiena katolikoa), hemen sartzen da (Villa Pia, St. Bernard, Largenté, St. Anne, St. Thomas d'Aquin eta beste...).

Frantziako estatuan baino indar gehiago du adar honek gure eskualdean. Hau ere ez da ahortzi behar Ipar Euskal Herriko giroan. Derragun ere euskaltzale eta abertzale anitz izan dela beti irakasle pribatuen artean.

3. BANKUAK - SEGURUAK: Jende langilearen % 15,1 (9.536 langile).

Bankuetan merkatuaren % 80, etxe nazionalizatuen eskuetan dago (*B.N.P. — Crédit Lyonnais — Société Générale*).

Bi banku dira bertakoak: *Inchauspé* (hau ez da deputaturarena, bere lehengusuarena baizik) eta *Banco de Bilbao*.

Crédit Agricole eta *Caisse d'Épargne* izatez herrikoago izan zitezkeen. Baina euskaldunen axolagabekeriagatik beste batzuk kudeatzen dituzte.

Orotara hemen biltzen duten diruaren %45 baizik ez dute tokian berean sartzen banku hauek, beste guztia kanpora doa... herriko gazteriarekin. Seguruetan gauza bera gertatzen da.

Komertzioa ere, bai handi bai ttipi, gehienik kanpotarren eskuetan dugu: Etxe handietan: *Printafix, Bazar, Dames de France, Biarritz-Bonheur, Carrefour, Casino*, etxe bertikalak dira: egunero diru sartzeak Parisera joaten dira. Dendari ttipi anitz eta anitz kanpotik jina dugu, euskalduna zinez herabe agertu da hirietako karrketan.

4. ZERBITZU PUBLIKOAK: jende langilearen % 11,6 (7.320 langile).

Administrazio guztia (Finantzak, Erregebideak, Justizia, Osa-

sunak, Irakaskintza Nazionalizatua) hemen dago. Gauza bat harri-garria, Merkatal Ganbarako estudioak ongi agertu zuena: Estatu-ko erdiari konparatuz 1.000 lanpostu gehiago behar genuke sail honetan (eta gehienak emaztekientzako litezkeen lanpostuak omen).

Bigarren oharra, hau liteke: euskaldun guti aurkitzen dela adar honetan. Administrazioan direnak Estatuko lau hegaletara zabalduak dira (aspaldiko politika baten legez). Eta gure eskualdean direnetan zenbait herriko interesei edo herrigintzari sobera hurbiletik, jarraitzen bazaizkio, laster gutartetik baztertuak edo mehatxatuak izaten dira (baditugu etsenpluak).

IPAR EUSKAL HERRIKO BARNE ALDEA

DEMOGRAFIA

Jendetza	1975	69.304
	1968	71.141
<i>Galtzea</i>		1.837

Galtzea nahiko haundia da (%3). Zenbait mendi-tokitan demografia arras iluna da. Puntu zenbaitz aparte eremu guztian jendetza atzeraka doa. Errealitatea hobeki ikusteko 5 eskualdetan zatikatuko dugu barne aldea.

I. — Donapaleuko eskualdea

14.032 bizilagun 1975ean

14.341 bizilagun 1968an

Sortzeen kopurua ‰ 14,1 da, eta heriotzeena, ‰ 12,8, 1975ean.

Donapaleu inguru. hurbilean jendetza gaztetu egin da. Hortik urruntzean jendetza zaharragoa da eta herri ttipiak hustutzen ari dira. *Lur Berri* koperatibak eman dio eskualde honi, laborantzian, zinez aitzinamendu ederra.

Arto egitea, abere hazkuntza eta komertzioa akuilatzen ditu *Lur Berrik* eta aktibitate horiei esker erran daiteke Ipar Euskal Herriko laborantzaren hiriburua dela Donapaleu.

Arto hazitakoa egiten da patenta amerikano batekin eta arto bihia bildu ondoan merkatuan saltzen. Duela zenbait denbora *Lur Berrik* erosi zuen *Forcans S.A.* sozietatea eta honi esker B.A.B. (Baiona, Angelu, Biarritze)ko Harategi Haundiaren %60 kontrolatzen ditu. *Sica Haraguy Lur Berriren* filialak haragia prestatzen du merkaturako. Bestalde, komertzioan *Lur Berrik* lur onkailuak, laneko tresneria eta abereen erremedioak saltzen ditu.

Erran dezagun oraino lege aldetik *Lur Berri* laborariena bada, horko langileak ez direla partaide koperatiban. Alde horretatik, eta beharbada ere laborarien artean ez baita nahiko harremanik, zenbait problema baditu koperatiba honek, nahiz finantza sailean ederki gidatua izan.

Etxagintzaz eta kcntserbategi ttipi batez aparte industria gutti dago Donapaleun bertan. Aiziritzen mueble fabrika bat dago eta Irisarin *Etchart* etxagintzako sozietate azkarra (60 langile).

Hirugarren sektorean aipatu behar dira zenbait ostatu, komertzio. Baina bereziki eskola andana bat, bai katolikoak bai estatuarenak, gazteriaren moldatzeko muntatuak (1.200 bat ikasle) eta laborantzako eskola.

II. — Hazparne - Kanbo eskualdea

	17.535 bizilagun 1975ean
	17.430 bizilagun 1968an
<i>Irabaztea</i>	105

Sortzeen kopurua ‰ 14,4. Heriotzeena ‰ 11,8 baldin bada Hazparnen (jendetza nahiko gaztea baitago hemen), ‰ 13,5 da Kanbon.

Lehen sektorea

Behi esnedunen toki berezia da eskualde hau. 1976an esneprodukzioa %14 goititu zen. Laborariak nahiko teknika onak erabiltzen dituzte. *Sica Esnea* koperatiba berriak laguntzen dituelarik sail honetan.

Lekornen kokatua dago Lafitte zuhaitz landaretegia, baratze antolaketak ere egiten dituen.

Ardia ere anitz sartu da abere-hazkuntzari emana den eskualde horretan.

Bigarren sektorea

Anitz urtez zapatagintzako toki paregabea izan baldin bada, Estatu guztian bezala erreka beheiti joan da aktibitate hori azken 15 urte hauetan. Bi arrazoi ikusten ditugu.

— Kreatibitate eskasa.

— Hirugarren munduko lantegien konkurrentzia.

Zenbait lantegik irauten du, hala ere.

Trolliet (120 langile), *Amespil-Mangoren* (120 langile), *Cayolle* (100 langile), *Carrère* (20 langile), *Hirigoyen* (20 langile), *Borthegron* (20 langile). Anitz lantoki galdu da azken urteetan. 1966an 1.100 lantoki ziren eta 1977an 600 bakarrik.

Aktibitate berri zenbait etorri dira, hala ere: *Euromat* (40 langile) plastik egilea eta bereziki *Somepa* bonba-berogailu muntatzailea, 300 langiletaraino hartuko duena. Zer lantoki beharra den agertzeko, erran dezagun bakarrik *Somepak* 1977an hemen jartzean 1.000 lantoki galde izan dituela, orainokoan 100 bat ireki ez duelarik. Hazparne ondoan dago baita *Boncolac* (udan 150 langile) bixkotxo eta gozoki hormatuaren egile den etxea. Haatik ULPAC Toulouseko etxearen eskuetan da finantza aldetik.

Ezpeletan aurkitzen da larru antolatzaile bat *Carriot* etxea (60 langile). Lantegi horietan orotan lansari ttipiak dira (2.000 F inguru hilabetean).

Badira etxagintzako ofiziale edo artisau anitz eta onak 10 langiletaraino ibiltzei dutenak eta Kanbon kanpoko obratako bi lantegi aski azkar *Durruty* (60 langile) eta *Christian* (20 langile).

Hirugarren sektorea

Bereziki azkar dago sail hau Kanboko aldean.

Osasun etxeak hor daude kokatuak aspaldian (700 lantoki orotara).

Hazparden bi eskola katoliko nahiko garrantzitsuak: bat laborantzaren sailekoa, bestea lanbide sailekoa. Anitz euskaldun gazte moldatzen dira horietan.

Bankuak anitz ajentzi-etxe dauzka hemen gairi, *Crédit Agricole* nagusi delarik.

Eskualde hau (Lapurdi barnea) kostatik nahiko hurbil dago, gazte-andana badago oraindik (bereziki Hazparden). Beraz, industria baten abiatzeko nahiko arrazoi kausitzen dugu hemen, bere

tokiari esker Ipar Euskal Herriaren erdian gelditzen dela kontuan harturik gainera.

III. — Baigorri - Garazi eskualdea

	1968an	14.415	bizilagun
	1975ean	13.351	bizilagun
<i>Galtzea</i>		1.064	bizilagun

Bereziki Baigorriko bailaratik heldu dira galtze horiek: heriotzeen kopurua jaiotzeena baino handiagoa da hemen. Berrikitan 300 gaztek firmatu dokumentu batek goraki adierazi du herrian bizi nahi dutela hauek. Bereziki ardi-hazkuntzari emana da eskualde hau. Ardi-esnea *Roquefort* etxe azkarrak biltzen du, nahiz komunikabide txarreatatik badiren problemak. C.E.E. elkarteak mantentzen du esnearen prezioa.

Ardi-gazna hauta egin dute artzainek eta urte guztiz gazna-feria ederrak muntatzen dira. Bada zenbait laborari-etxe azkar Garazi aldean, baina ez Donapaleun bezanbat. Irulegiko ardo-kooperatibak lan ederrik egiten du horko ardoa merkatuetara zabalduz fama on batekin.

Irati oihaneko zurak Sindikatoak kudeatzen ditu eta haien mozkina bide egiten baliatzen.

Bigarren sektorerik ez dago: artile fabrika bat, zenbait harrobi, etxegintzako ofiziale onak nasai haatik bai, mueble egileak ere bai.

Hirugarren sektorea turismoari emana da, Donibane Garazik gaitzeko arrakasta baitu udan, eta horko komertziantek turistez fuñatuak.

Eskualde horri aterabide bat emateko, beharrezkoa litzateke Iruñerako komunikabideak hobetzea, bai bidez bai trenez.

Mayorgako eskolan bai eta C.E.S. publikoan ibiltzen da gazteria. B.N.P., *Inchauspe* eta bereziki *Crédit Agricole* dira horko bankuak.

Oro har eskualde hau anitz atzeraka joan da. Beharrezkoa litzateke industria bat Donibane eta Baigorri artean muntatzea. Berriki badirudi *Denek* mueble fabrika bat eraikiko dela Arrozen kooperatiba moduan eta Lankide Aurrezkiari lotua. Agian lehen izana Garazi, Baigorriko zero xoragarriak segur merezi lukeena...

IV. — Bardotze - Bidaxune - Beskoitze - Bastida erdi kaskoin erdi euskaldun

	1975ean 8.139 bizilagun
	1968an 8.265 bizilagun
<i>Galtzea</i>	<hr/> 126 bizilagun

Sortzeen kopurua ‰ 14. Hiltzaena ‰ 14.

Eskualde honetan ere B.A.B. hiriguneari hurbiltzean, egoera hobekitzu da, Beskoitze, esate baterako, arras Baionaren iri ume agertzen baita. Hemengo laborantza ere gehienik abere-hazkuntzari emana da. Aiherra eta Bidaxuneko herrietan badira laborarixte azkarrak esnari eta artoari emanak. Donapaleuren influentzia sentitzen da hemen.

Akamarreko mueble eta kadira lantegiez aparte industria guti da hemen gandi. (Aiherran mekanika lantegi pollit bat, 20 langilerekin).

Hirugarren sektorean aipatu behar dira bi erretiratuen etxe Isturitzen eta Ahurtin.

Bestenaz eskualde hau ere nahiko hila dugu, industri aktibitate beharretan. Baionatik hurbil dago (ordu-erdi bat) eta gazteriak gero eta gutiago utzi nahi du bere sorterrira.

V. — Zuberoa

	1975ean 16.247 bizilagun
	1968an 16.630 bizilagun
<i>Galtzea</i>	<hr/> 443 bizilagun

Bereziki Atarratzeko kantonamendua dugu eri.

1962an 9 urtez behekoak ‰13,5 ziren; 1975ean ‰8,9 bakarrik. 1962an 60 urtez goitikoak ‰23,4 ziren; 1975ean ‰28,6 (kasik hiruetatik bat).

Mauleko eskualdeak ere krisi gogorra ezagutzen du egun hauetan. 1.500 espartin-egiletarik 500 lanik gabe daude.

Lantegi haundienak hauek dira: *F.I.T.* (400 langile kautxu egiten), *Etchandy* (300 langile orotora espartin egiten), *Begueric* erdi hila (120 langile), *Idiart* zur negoziantea (60 langile). Oro-tara 6 lantegi 100 langile baino gehiagorekin eta 30, 10 langilez goiti.

Irakaskuntza mailan badira bi eskola, *St. François* kolejioa, hainbat Zuberotarren moldatzailea eta lanbide eskola bat, Estatuarena.

Artzaintzan aitzinamendu handiak egin dituzte Zuberotarrek beren Artzainen Sindikatoarekin. Aldiz, mendi lurren sindikatoaren kudeantza gero eta gehiago kritikatu da. Zuberoan ere beste eskualdetan bezanbat gazteriak herrian nahi baitu bizi eta hortakotz giderrak eskuan hartu.

AZKEN SOLASA

1. — Gure ustez nahiko argi ikusten da Ipar Euskal Herriaren babesle dagoen Estatuak ez duela ez nahikaririk ez indarrik Ipar Euskal Herria aitzinera ateratzeko. Sobera lan badu Europa barnean bere interesen defendatzen (Alemaniari buruz).

2. — Ipar Euskal Herria hainbeste urte lo egon bada, emeki bada emeki ari da kontzientzia hartzen, bere nortasunaz, bereziki gazterian. Gazteria honek herrian nahi badu bizi bere eskuetan beharko du hartu eri dagoen ekonomia hori eta aitzina atera.

Agian horretarako izanen de Hego Euskal Herriko erakundeen eta jendearen laguntza.

¹ LARRARTE, M.: *Marins d'Euskadi pionniers de la pêche au thon*, in Bull. du Musée Basque n.º 75 (1977).

R. K.

LA ECONOMIA EN EUSKADI NORTE L'ECONOMIE AU PAYS BASQUE NORD

Hay que advertir, en primer lugar, que el País Vasco Norte no tiene existencia oficial, ni personalidad propia desde 1789. Es por ello difícil el estudio de su economía. Faltan los datos estadísticos. Por otra parte, el País no tiene tradición industrial: sobre 250 jefes de empresa solamente una veintena son vascos.

Un examen del conjunto invita a distinguir dos zonas:

- 1.— La Costa, que comprende Laburdi, menos los cantones de Hasparren, Espelette, Bidache.
- 2.— El Interior que comprende todo el resto de Laburdi, más la Baja Navarra y Zuberoa.

I.— LA COSTA VASCA: Es la región desarrollada donde el sector primario comprende solamente el 7,8% de la actividad. El secundario (36,2%) comprende la alimentación (5,3%), sobre todo la construcción (14%) y la metalurgia (8%). El resto, química, energía, papel, madera, textil es menos importante. El sector terciario, el de los servicios, es el sector dominante: transportes, comunicaciones, servicios privados, comercio, seguros, servicios públicos, comprenden el 56% de las actividades y 36.000 personas.

II.— EL PAIS VASCO INTERIOR está en fase depresiva casi en todas partes. Se puede dividir en cinco sectores:

La región de Saint-Palais, gracias sobre todo al esfuerzo cooperativo de los agricultores (Lur berri) manifiesta una cierta vitalidad.

La región de Cambo-Hasparren participa de la vitalidad de la Costa.

El sector de Baigorry-Saint-Jean, el de Bardos-Bidache, en fin el de Zuberoa están en plena crisis: deserción del campo y la crisis del calzado en Mauleón, única actividad industrial de la región.

En conclusión, está claro que el Estado francés no tiene voluntad alguna de promocionar el País Vasco Norte. Pero está igualmente claro que nace una nueva conciencia de País, sobre todo entre los jóvenes. Quieren quedarse en el País. Hará falta para ello que se encarguen de la economía enferma, quizás con la ayuda de las instituciones y personas de Euskadi Sur.

Il faut d'abord noter que le Pays Basque Nord n'a pas d'existence officielle, ni de personnalité propre depuis 1789. Il est difficile de ce fait d'étudier son économie. Les données statistiques font défaut. D'autre part, le pays n'a point de tradition industrielle, sur 250 chefs d'entreprise, une vingtaine seulement sont basques. Un examen d'ensemble invite à distinguer deux zones:

- 1.— La Côte comprend le Labourd, moins les cantons de Hasparren, Espelette, Bidache.
- 2.— L'Intérieur qui prend tout le reste du Labourd, plus Basse Navarre et Soule.

I.— LA COTE BASQUE: C'est la région développée où le secteur primaire regroupe seulement 7,8% de l'activité. Le secondaire (36,2%) com-

prend l'alimentation (5,3%), le bâtiment (14%) surtout et la métallurgie (8%). Le reste, chimie, énergie, papier, bois, textiles est moins important. Le troisième secteur, celui des services est le secteur dominant: transports, communications, services privés, commerce, assurances, services publics regroupent 56% des activités et 36.000 personnes.

II. — LE PAYS BASQUE INTERIEUR est en phase dépressive à peu près partout. On peut le diviser en cinq secteurs:

La région de Saint-Palais, grâce surtout à l'effort coopératif des agriculteurs (**Lur Berri**) manifeste une certaine vitalité.

La région de Cambo-Hasparren participe à la vitalité de la Côte.

Le secteur de Baigorry-Saint Jean, celui de Bardos-Bidache, celui enfin de la Soule sont en pleine crise: désertion des campagnes et crise de la chaussure à Mauléon, seule activité industrielle de la région.

En conclusion, il est clair que l'Etat français n'a aucune volonté de faire sortir le Pays Basque Nord de cet état. Mais il est clair également qu'il y a une nouvelle conscience de Pays, surtout parmi les jeunes. Ils veulent rester au Pays. Il faudra pour cela qu'ils prennent en main l'économie malade avec, peut-être, l'aide des institutions et personnes du Pays Basque Sud.